

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

AdaptaBerriren funtsezko jarduerak proiektuaren balio-proposamena gauzatzen dute. Jarduera hauek dira gure eguneroko lanaren muina, eta zuzenean lotuta daude produktuaren kalitatearekin, bezeroaren gogobetetzearekin eta proiektuaren jasangarritasunarekin.

Edukien Diseinua eta Garapena.

Kontuan izango dugu ipuin inklusiboen sorrera, jarduera praktiko eta multisentsorialen diseinua baita gida didaktikoen elaborazioa (familientzat eta profesionalentzat).

Edukiak beti izango dira: adin-tarteari egokituak (6–9 urte), ikaskuntza-zailtasun ezberdinetara moldatuak eta hizkuntza sinple, argi eta motibatzailearekin sortuak.



Materialen Egokitzapena eta Pertsonalizazioa.

Kolektibo bakoitzerako edizio espezifikoak sortzea (TDAH, dislexia, TEL...), diseinu eta formatu desberdinak eskaintzea.

Honek Balio erantsia ematen du; produktua ez delako estandar hutsa, baizik eta benetako beharretara egokitua

Ekoizpena eta Banaketa.

Inprimaketa eta maketazioaren kudeaketa, “pack” fisikoen prestaketa eta eduki digitalen kudeaketa eta deskargak izango dira.


Helburua produktua bezeroarengana azkar, modu seguruan eta kalitatearekin iristea da.



8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Komunikazioa eta Marketina

Sare sozialetarako edukiak sortzea (bideo laburrak, aholkuak eta erabilera-adibideak) eta webgunearen etengabeko eguneraketa, marka ezagutarazteko eta komunitatea sortzeko.




Hilean behin eduki berriak sortzea, material zaharren berrikuspena eta feedbackaren arabera hobekuntzak txertatzea, proiektua bizirik mantentzeko eta bezeroen fidelizazioa mantentzeko.



Bezeroarekiko Arreta eta Jarraipena

Zalantzei eta kontsultei erantzutea (24–48 ordu), post-salmentako laguntza eskaintzea eta B2B bezeroekin jarraipen profesionala egitea, erabilera egokia eta esperientzia positiboa bermatzeko



BIBLIOGRAFIA

- SologoAI. (s. f.). AI logo generator — Generated logos. SologoAI.<https://www.sologo.ai/ai-logo-generator/generated>
- TuLibrodeFP. (s. f.). Inicio - TuLibrodeFP. Editorial TuLibro.https://www.editorialtulibro.es/tulibrodefp/?utm_source=
- STARTinnova. (s. f.). STARTinnova — programa de emprendimiento.https://araba.startinnova.com/estado_curso.php?idioma=es
- International Dyslexia Association. (s. f.). Dyslexia basics.https://dyslexiaida.org/dyslexia-basics/?utm_source=
- Federación Española de Dislexia (FEDIS). (s. f.). Federación Española de Dislexia (FEDIS).https://fedis.org/?utm_source=
- EDGAR — U.S. Securities and Exchange Commission (SEC). (s. f.). EDGAR — Search and company filings https://www.sec.gov/edgar/search/?utm_source=

